

Extremadurari buruzko jardunaldiak asteburuan

■ Hernanin egiten diren 9garren urtea da ■ Ekintzak larunbatean eta igandean izango dira ■ Bideoak, dantzak, kantzak, poesiak, bertako produktuak... denetik izango da.



Virgen de Guadalupe dantza taldea, Intxaurrondon.

HERNANIN jatorri Extremeinoko komunitadea zabala da. 60garren hamarkadan 2.000tik gora etorri omen ziren Hernanira, lana zela medio. Egun 1500 inguru dira handik etorritako hernaniarrak.

URTEROKO FESTA

Hernanin ez da Centro Extremeinorik, baina, Intxaurrondon, Andoainen, Erreterian edo Lasarten bai. Datorren asteburuko festa Intxaurrondokoek antolatuko dute.

Intxaurrondon 350 bazkide ditu Extremeinoen etxeak (Zarategi etorbidean dago), baztuek Hernanikoak. Bazkide izateko izena eman eta 1000 Pta ordaindu behar dira hilean.

HANGO JATENAK

Extremadurako ohizko jateak probatu nahi dituenak igande goizean du aukera. Urdai azpiko iberikoa, Deleitosa gazta, Monte Mayorreko xolomo eta txorixoak eta artesanalki prestatutako gozoak izango dira aukeran.

KOBREA ETA SESTOAK

Guadalupe inguruko kobrezko gauzak eta Hurdesetako sestoak jarriko dituzte aurten salgai, igandeko merkatutxoan. Horrez gain propaganda turistikoa ere edonoren eskura egongo da igandean, Aste Santua hain gertu izanda jendea irrikia sartzeko garai egokia baita. □

EGITARAUA

Larunbata, apirilak 7

19:00etan: Extremadurari buruzko bideoak. Sandiusterrin.

Igandea, apirilak 8

10:00etan: Extremadurako produktuak salgai; Guadalupe eta Las Hurdes-eko artisau lanen erakusketa. Urbieta Kalean (feria jartzen den inguruan).

13:00etan: Virgen de Guadalupe dantza taldearen emaldia. Urbieta kalean.

17:00etan: Virgen de Guadalupearen bigarren dantzaldia. Urbieta kalean

Abesbatzen topaketa izango da datorren larunbatean

■ Parte hartzaileak: Andoaingo *Alberto Agirre*, Lasarteko *Alboka*, Hernaniko *Ozenki* eta *Kantuz* abesbatzak eta Hernani eta Andoaingo txistulariak ■ *Kantuzek* antolatu du.

1984AN Hondarribian antolatutako abesbatzen topaketaren bidetik hasi ziren horrelako egunak ospatzen. Andoainen 1990ean egin zen eta Lasarten 1991ean. Ordu ezkerro, Buruntzaldeko abesbatzek antolatzen dute topaketa, aldiro herri batean. Egun honek arrakasta haundia lortu du.

LARUNBAT ARRATSALDEAN

16:00etan Milagrosan entsaia-tuko dute talde guztiak, eta 17:00etan kalera aterako dira kantura, bakoitza bere aldetik. Indarrak berritzeko merienda-tu eta 20:00etan kontzertua emango dute talde guztiak batera, Parrokian. Gaueko

22:00etan afaria izango dute *Jauregi* jatetxean. □

GOIKO ARDOAK



Joseba Gorostegi Goikoetxea
Tel. 943 55 19 15 - Mobbila 657 77 71 46

Umeentzako kontzertua emango du Bandak

■ Ostegunean, Biterin, arratsaldeko 20:00etan.

BANDAK haurrei zuzendutako kontzertua emango du datorren ostegunean Biterin. Abesti ezagun eta alaiak joko dituzte: Pantera Rosa, Disney fantasy, The Simpsons... Abesti bakoitzaren aurretik instru-

mentu bat erakutsiko diete umei; abestian protagonista izango dena hain zuzen ere.

Orain arte zuzendariorde izan den Zipri Otxandorenak gidatuko du Banda, kontzertu berezi honetan. □

Gabriel Celayaren omenezko sinposiuma

■ Izen haundiko irakasle eta poetek hartuko dute parte
■ Asteazkenetik ostiralera, Donostian, Koldo Mitxelena.

POETA hernaniarra hil zela 10 urte beteta, Diputazioak eta Koldo Mitxelena Kulturuneak Gabriel Celayari buruzko sinposiuma antolatu dute. Izenburua ere Celayaren esaldia du: *Poesia etorkizunetz kargatutako arma da.*

Asteazkenean 17:00etan, Fanny Rubio Complutenseko irakasleak "Gabriel Celaya eta literatur aldizkariak" hitzaldia emango du. 18:00etan, berriz, Antonio Chicharro Granadako Unibertsitateko literatura irakasleak hitz egingo du Celayaren saiakeraren gainean.

Ostegunean 10:00etatik 19:00ak arte izango dira hitzaldiak. Sinposiuma ostiralean bukatuko da Anparitxu Gaston Celayaren alarguna bertan dela egingo den omenaldi ekitadiarekin.

CELAYAREN LAN OSOA

Diputazioak Celayaren obra osoa bilduko du sei tomatan. Lehenengoa ostiralean aurkeztuko du. Bestalde, KM-k Celayari buruzko web orria egin du haren poema, argazki eta abarrekin: <http://gipuzkoa.net/Celaya.htm>. □

KEPA PIKABEAREN ARTE ERAKUSKETA

Txemari Aranburuk, Garatek eta Petxarromanek hitzaldia, asteartean Biterin, 19:30etan

■ 'Oroimena, Euskal Herriarekiko lotura' da gaia.

OROIMENAK "Euskal Herri-kanpo, hurren edota giltzapeturik bizi diren euskaldunengan zein funtzio eta garrantzi duen" aztertuko dute astearteko hitzaldian.

Txemari Aranburu hernaniarrak ia 20 urte egin ditu kartzelan, Gotzon Garate idazlea eta Begoña Petxarroman Estatu Batuetan egonaldi luzeak egin dituen antropologoa.

Bestalde, ostiralean 25 lagun izan ziren Fermin Muguruza eta Carlos Zabalaen hitzaldian. (Argazkian, Josu Arrieta, antolatzaile bat). □



HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel. 943. 55 43 12
20120 HERNANI

ETXARRI
www.etxarri.com

HERNANI Urbieta 8 Tel 943 336116
LASARTE Nagusia 17 Tel 943 361484
ANDOAIN Elizondo 2 Tel 943 594148

■ ESKUBALOIA (EUSKADIKO LIGA)

Hernaniarrak 'play-off' eko postu baten bila, azken partiduan

■ Lehen hiru taldeak puntutan berdinduta daude ■ Bi taldek jokatu dute igoerako 'play-off' a ■ Hernani-Urdaibai, Bidebietan, gaur, 12:15etan.



Hernaniko eskubaloia taldea.

LIGA bukatzeko partidu bakarraren faltan, dena erabakitzeko dago oraindik. Lehen postuan

hiru talde daude: Ermua, Elgoibar eta Hernani; puntu berdinekin hirurak ere. Hiru

talde hauetatik bik jokatu dute igoerako *play-off*a.

IRABAZI EZKERO AURRERA

Gureen pozerako Ermuak eta Elgoibarrek elkarren kontra jokatu behar dute gaur. Hernaniarrak irabazten badute klasi-fikatu egingo dira, beraz.

PUBLIKOAREN LAGUNTZA

Kiroldegian jokatzea zen gaurko partidua, baina, azken orduko aldaketak medio Bidebietara eraman dute partidua. "Garrantzitsua da gaur Hernanitik afizioa etortzea, guk animoak beharko baititugu Urdaibairi irabazteko" esan dio Ainhoa jokalariai Kronikari. □

■ HITZ BITAN



Koadrila haundia behar izan zuten amurraia ateratzeko.

✓ ARRANTZA

2.700 gr-tako amurraia atera dute Latxen. Ostiralean 20:00ak inguruan heldu zion Miguel Angeli, eta 21:00ak inguruan lortu zuten ateratzea. Zazpi lagun aritu ziren eginaldean, pita askatu, pixkat ekarri, osteria ere askatu... amurraia nekatu arte. Baina gero lanak! erriotik gora lau bat metro badira eta ezin amurririk gora ekarri. Salabardoari sokak lotuta saiatu ziren; baina, kabitze ez. Azkenean fruta kaja batean atera zuten: sokak lotu alde banatan, ladriloak sartu urpera joan zedin eta amurraia sartu zutenean gora.

✓ FUTBOLA (HIRUGARREN MAILA)

Hernanik Durangon hil ala biziko partidua. Denboraldi amaiera ikus litekeen honetan txuri berdeak beheko postuetan dabilta. Gaur irabaztea beharrezkoa dute burua altxatzeko. Durangon jokatu dute arratsaldeko 17:00etan. □

🔪 JASOTA BEZALA

ANGIOZARREK MEREZI DU

Urteroko Eskola Txikien Jaia, aurtengoan Angiozarren izango da, hurrengoan berriz Ereñozun. Herri txiki egitura duten bi auzo hauek aipatu eta goraiatu litekeen beste gauza askoren artean, auzoaren biziraupena ziurtatzeko ezinbestekoa den altxorra daukate: eskola txikia.

Jaiaren aurkezpena joan den 23an izan zen. Angiozarko anaitasun giroak berehala irentsi egin ginen, elkartasuna eta ilusioa nagusi den lekuan ez baita arrotz sentituko denik.

Guztien artean antolatutako antzerkitxoak ikusi genuen. Globo

ikusgarrien gidaritzapean "Eskola Txikiak Bizirik - Herri Txikiak Bizirik" leloa zeruratu, eta ospakizuna alaituko duen abesti polita ere aurkeztu zuten, koreografiar horniturik. Argazki zaharren erakusketaren ostean, eguna amaitzeko, bertso afaria izan zen, trikitixa eta guzti. Oihartzun txikia, xarma handia.

Ekainaren 10ean jende asko izango da, gu bezala, Angiozar eta Eskola Txikien aberastasunaren eraginez indarberrituta itzuliko dena.

Joseba Iurramendi eta Andoni Lizeaga (Ereñotzuko Txirrri Eskolako gurasoak)

■ PELOTA

Hernaniarren arteko finala

PALETA goman Jubenil mailako Hoz eta Salaberriak Burutaran eta Lujanbioren kontra jokatu dute Udaberri Txapelketako finala, gaur, Donostiako Atano IIIan, goizeko 10:00etan. Bestalde, jubenilen eskuzko txapelketan Alvarez-San Sebastianek finalerako txartela lortu zuten ostiralean, aurreko asteko emaitzari buelta emanda. □

AGENDA

❖ **URUMEA IKASTOLAKO JAIA**
11:00etan, Galarretan.

❖ **ZINEA BITERIN**
102 Dalmatas
17:00etan

Cadena de favores
19:30etan

❖ **MUSIKA**
Trakets
Oialumen, 20:00etan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738
▶ Gaez: Zatarain
Andoain. Arteta, z/g
☎ 943 590802

OSTEGUNETAN ZATOZ 'BEZERO TXARTELAREKIN'

Eskaintza bereziak
aurkituko dituzu

Aitor AITOR PEÑA
FRUITATEGIA
Larramendi 5, Tel. 943 33 31 03
HERNANI

ARREGI
ALTZARIAK
Elkano 10-12 . Tel. 943 55 14 46
HERNANI

AURKI
Eskulanak/Arte Ederrak
Jkastaroak
Tlf.- 943 55 72 56
Elkano, 6. HERNANI

uota gijamir, marmot, jowe alpi
ne jol fad, pedit
atzieta 41
(943)33 30 58

Kortsetegi - Mihisedenda
Haixea
Tlf.- 943 55 55 19
Kardaberaz 2 - 20120 HERNANI

PLAYTEX CACHAREL INTIMA CHERRI GEMMA
Hoki
LATSUNBE 4 - TEL. 943 33 16 87
HERNANI

IZASKYN KIROLAK
Elkano 9 - Tel. 943 556 055
20120 HERNANI

JAIONE
Kongelatuak
ELKANO 1 - Tlf. 943 55 07 8
20120 HERNANI

FOTOGRAFIA
Jose J. Etxarri
Marisol
Gudarien Plaza. 7 - Atzieta 17
Tel. 943 55 26 45 - HERNANI

PRODUTO NATURAL
MASUSTA
EKODENDA
Kardaberaz 43 - 943 55 57 10
HERNANI

MINER
JANARIDENDA
Nagusia 49
20120 HERNANI
943 55 01 36

LIBURUDENDA - PAPERTEGIA
LEOKADISTI
Urbietan etorb. 6 / Tel.943 55 12 29
20120 HERNANI

JANTZIDENDA
LOHER
EMAKUME ETA
GIZONEZKOENTZAT
Elkano 1 - Tel. 943 555 003 - Hernani

SUMINISTROS ELECTRICOS
HERNANI
P. CARDABERAZ, 49-TEL.557090
HERNANI
Kardaberaz 49 - Tel.943 55 70 90